

## Gasherbrum II expedizioa

XABIER ERRO

«**G**AUR uztailaren 18-an egun honetan, Gore-tik irten naiz goizeko 4-etan, ibili baino gehiago glaziare gainetik arrastaka mugitu naiz, aurrean Skin portea-dorea doa, Urdukas-era 11ak inguruan iritsi eta 20 bat minutuko atsedena hartu dugu ura Tang nahasturik edateko, hori da daukagun guztia. Beheruntz jarraituz eta Liligora iritsi baino lehentxiago K2-ko behe kanpamendura doazen garrantzailerik batzurekin elkartu eta chapati eta thea eman didate. Liligo-tik Payu

ikustea lortu dut baina oraindik glaziare guztia gurutzatuar daukat; azkenean arratseko 7-etan Baltoroko paradisu galdu honetara iritsi naiz (berau da zuhaitz artean eta iturri garbi-ederren hondoan jartzen den azken kanpamendua ibilaldi luze honetan) garrantzailerik ere badira hemen; gertatutakoaren berri badute eta, senide bezalatu onartu naute; duten guztia eskeintzen didate; haragi salda, chapati, thea; nire estomaka ordea ez dago txantxa horietarako, txikiturik dago eta ezin dut gustatuko litzaidakena jan.»





Llegando en jeep a Foljo.

Fotos del autor.

**Ultimo día  
de la marcha  
de aproximación.  
Xaring a 4.800 m.**



Payu, 3.500 m. Antton con el shirdar y dos porteadores.

*Hau idatzi nuen neure «diarioan» Gasherbrum II-tik jeisterakoan, bost egunetan egiten den ibilaldia bi egunetan egin ondoren. Nere helburua Skardura lehenbait lehen jeistea zen; Amayarekin harremanetan jarri eta Uztailaren 13-an gailurretik jeisterakoan Anttoni gertaturikoa jakin arazteko.*

*Payura iristean, lurrean etzan nintzen, ez nuen ezta denda montatzeko gogorik ere. Iturri ondoan etzanik eta makal ostoen mugimenduak eragindako haize arinez inguraturik, nere pentsamenduek bertan zirauten; hiru aste lehenago leku beretik gindoazen goruntz. Hemen igaro genuen egun oso bat, garrantzaleek hementxe prestatzen bait dituzte Behe-kanpamendura joan-etorria egin ahal izateko behar duten janaria, egun horretan jai eder bat antolatu zuten arratsaldean, garrantzaleek danborren bat jo eta abesten zuten, beste batzuk dantzaz bitartean; Antton izan zen jai hartan zirikatzaile eta animatzaile nagusia; behin eta berriz atera zuen jendea dantza egitera. «Hau da Beheko kanpamendura iristeko egiten den ibilaldian, sua egiteko egurra aurki daitekeen azken lekua; hemendik aurrera Baltoroko glaziarretik barrena 80 km ditugu Gasherbrumeko oineraino iristeko.»*





## Behe Kanpamendutik gora

Lan nekeza gertatu zitzaigun Behe kanpamenduraino iristea. Egun batean egin genuen Payu-tik Urdukas-raino, hemen jasan genuen lehen elur ekaitza, urrengo egunean, Urdukas-tik Gore-ra elurra izan bait genuen, baino Gore-tik Konkordia eta Sharing-raino oso egun gogorra izan zen; belauetarainoko elurra genuen eta Konkordiatik aurrera ez zegoen inongo aztarnarik. Azken etapa, Sharing-etik Behe kanpamendurainokoa izan zen gogorrena, Antton, Garaioa eta hirurok ordu bat lehenago atera ginen.

Azkenik uztailaren 5-ean iritsi ginen Behe kanpamendura; hura etxera iristea bezala izan zen. Han zeuden kokaturik lau ekspedizio, I Ipar Amerikarrak, emakume Britainiarrena, Nazioartekoa eta Koreaarra. Dendak amerikarren ondoan kokatu genituen, hurrengo egunean uzten bait zuten bertan behera Gasherbrumeko ekspedizioa bi hilabete luze igaro eta gailurrik lortu gabe... 7.400 metrotarainoko erruta edo bidea lokarri finkoek ekipaturik utzi ziguten.

Hilaren 6-ean (San Fermín bezpera) sukaldia eta jangela egokitu genituen eta txupinazoa ondoren otorrunza goxo bat dastatu genuen; ez zen ez ardorik ez patxaranik falta; Anttonek farias batzu atera zituen; eta Gregoriok bere filarmonikarekin San Fermínetako zenbait doinu eskeini zizkigun besteak elur gainean eta gure botatzarrekin dantzatzen genuen bitartean; sukaldariak eta «Oficial de enlace»-ak berak ere esku hartu zuten jaietan, beste ekspedioetako partaideak ikusmiran ibili ondoren gure jai honetan esku hartzen ausartu ziren. Ez zitzaigun nolana hiko jai atera!

Hurrengo egunean goizeko 5-etan irten ginen Behe-kanpamendutik eta «Cascada de hielo» deritzoguneruntz abiatu ginen; errailduretako batetan Britainiar emakumeak topatu genituen, poloniarra den Wando Rucki-wick zuten gidari, bi hilabete daramate hemen eta dagoeneko ongi prestaturik daude, beraien atzetik igo gara 5.700 metrotaraino. Hor uzten dugu gure material guztia eta Behe-kanpamendura itzultzen gara eta berriro San Fermín eguna ospatzeari ekiten diogu. «Gaur eguraldiak aldatu du ederra dago, baina goizeko hamarretarako ezinezkoa egiten zaigu glaziare gainetik ibiltzea, eguzkiaren eragina nabaria zapaltzen dugun honetan.»

Uztailaren 8-an goizeko 2-tan irten ginen eta aurreko egunean utzitako materialeak jaso ondoren, 6.000 metrotan ginen goizeko 10-etarako, hemen gure lehen kanpamendua finkatu ondoren Behekanpamendura jeitsi ginen bazkaltzera; arratsaldez egin genuen lehen bilera eta bi lantaldetan banatzea erabaki genuen. Eguraldi onak jarraitzen duenez uztailaren 8-an beste igoera bat egingo dugu 1.º kanpamendura materiale gehiago garraiatzeko asmoz eta han gertzen gara lotan Goñi, Antton, Txispi eta laurok, besteak berriro itzultzen dira Behe-kanpamendura.

Uztailaren 10-ean goizeko 4½-ak inguruan 2.º kanpamendurantz irten ginen, erruta lokarri finkoek egokiturik zegoen eta 65º-70º-tako aldapak gainditu ondoren, 10-ak aldera aurkitu genuen 2.º kanpamendua izango zen lekua, dorre gainean, 6.500 me-

trotan. Janaria eta edaria prestatzen bete genuen egun osoa, eta eguraldia gure alde zegoenez, jarraitzea erabakitzen dugu. Gainerakoak gaur igo dira 1.º kanpamendura.

Uztailaren 11-an, egunsentian irten gara eta goizeko 11-etan iritsi gara 7.000 metrotara, eta han amerikarrek utzitako denda txiki baten ondoan jarri genuen gure denda eta berriro atsedena hartuz jan eta edan genuen zoragarritzko paraje honetan. Arratsaldeko 2-ak inguruan Txispak, 2.º kanpamendura jeistea erabakitzen du ez bait du oso ondo aurkitzen bere burua. 2.º kanpamendura, Garaioa eta Pagola iritsi dira eta 1.º-ra Gregorio eta Pili.

## Gailurrerantz

Uztailaren 12-an eta goizeko 8-ak inguruan azkeneko kanpamenduan gaude, 7.400 metrotan, neu ordubete lehenago iritsi nintzen eta gailurrerantz zihoazen Wanda, Rhona eta Kathy-rekin elkartzeaz egon nintzen, lehengo biak gailurrerantz jarraitu zuten, Kathy 2.º kanpamendura jeitsi zen.

**Llegando al Campo I a 6.000 m. Al fondo el G-I (Hidden Peak) de 8.068 m.**



Foto: Antton Ibarguren.

Arratsaldeko 7-retan itzultzen dira Wanda eta Rhona gailurra egin ondoren. Zorionak eman eta iritzeko prestatu ginen. 12-ak inguruan izango ziren Anttonek, Pepe eta ni esnatu gintuenean. Thea pixka bat prestatu nuen, eta lo egiteko zaku barruan sartu genituen, ez daude gelatuta. Goizeko 1½-ak aldera abiatu ginen goruntz geure «frontalekin». Haizeak gogor jotzen du eta hotza ikaragarritzkoa da; motxila berriz arinak, argazki kamara, lumazko zakuttoetan urez beteriko kantimplora eta ezer gutti gehiago. Gailurreko piramidea zeharkatu ondoren 7.700 metrotan dagoen gaineko lepakara iritsi ginen egunsentian, goizeko 4-ak inguruan. Antton eta Pepe atzetik zetozen.

Lepakan ezin dut hotzaren zatzada jasan, manoplak kendu eta eskuak berotzen saiatzen naiz, pixkanaka, pixkanaka sentitzen hasi naiz, atzeruntz begiratzen dudana batetan bi argi ikusten ditut, Antton eta Pepe dira, ez zaie asko falta. Eskuak berotu ondoren goruntz jarraitzen dut; 6-ak ingurako lehen eguzki izpiak eskertzeak izan dira. Gailurra lortzea besterik ez dut pentsatzen eta haizeak ezabaturik baditu ere, Rhonaren pausoak jarraitzen ditut; atsedentxo batetan gailurreko ertzean, haizeak «odei zurizko boladak» altxatzen dituela somatzen dut, goran bisutsa ari du, kezkarria beraul!





Foto: Xabier Garaioa.

**Campo I a 6.000 m.  
Al fondo el G-II de 8.035 m.**


Behelatik berriz, Anttonek nere pausoak jarraitzen ditu, mantxoago dator Pepe, ez dut uste arazorik izango dugunik gailurra lortzeko. Goruntz jarraitzen dut eta 40 metro luzeko ertz estua, haize gogorrez astinduta igo ondoren, ezin dut gorago egin: Gailurrean nago! Gailurretik 360 gradutako inguru zoragarria, aurrez aurre K2, ni baino handiagoa eta hurbil ikusten dut; azkar eta denborarik galdu gabe, ikurrina, ski bastoiari lotu ondoren elurretan finkatzen dut eta argazki batzu ateratzen ditut eta ondoren Rhona eta Wandak utzitako bi ikurrintxo jaso ditut eta berriro beheruntz ertz madarikatu hortatik barrena. Goizeko 8-ak laurden gutxi dira eta azken bi ordu hauetan ez ditut oinak sentitzen, leku egoki bat aurkitu behar dut, oinak igurtzitzeko.

### Anttonen bila


«Pala»-tik beheruntz abiatu ondoren Anttonekin egin dut topo, oso ongi doa; ertz horretan kontu handiz ibiltzeko gomenda-

tzen diot eta beherago, arroka batzuren gainean itxoingo dudala esaten diot, hantxe berotuko ditut neure oinak. Handik gutxira, Pepe-rekin gurutzatzen naiz, mantxo baina ongi doa. Goi lepaka gainean dauden arroka batzutan geratzen naiz, oinak ongi doaz. Goi lepaka gainean dauden arroka batzutan geratzen naiz, oinak ongi igurtzi ondoren, 20-25 minutuko lokuluska botatzen dut motxila gainean eguzkiaren beroa dastatuz, esnatu-takoan zera ikusten dut, Peperi ordu erdi inguru falta zaio gailurrerako eta Antton berriz lasai dator, eskuineko eskuan pioleta, ezkerrean berriz ski bastoia, halako batetan estropuz egiten du, kranpoia trabatu ote zaion beldur naiz eta erori egiten da, pioletarekin kolpe egin arren elurretan geratzen zaio eta abiadura hartzen du beheruntz, ez dut gehiago ikusten. Nekez sinesten dut ikusten ari naizena, segundu batzu barru motxila hartu eta banoa goruntz. Pepe gailurretik

### VERTIENTE PAKISTANI



### VERTIENTE TIBETANA



hurbil dago, karraxi egin diot, keinuak ere baina bera ez da ohartu gertatu denaz. Anttonen bila hasten naiz, ezta arrastorik ere! ez da geratu! aztarnak, Tibet aldera doan aran batetara ematen zuten zuzen.

Peperi gertatutakoa kontatzen diot, ez da jabetzen! ez du ezer ikusi! berehala aurkituko genuela «zioen». Lau orduz bila ibili ondoren bere pioleta eta ski bastoia aurkitu genituen, ez dago zer eginik, ez dugu berriro ikusiko! bereak egin du!

Arratsaldeko 2-tan goilepakara iritsi ginen, Pepe beste ordu batez geratzen da, arratsaldeko 4-ak aldera iritsi naiz 4.º kanpamendura eta Garaioari eta Pagolari eman diet berria; bi ordu barru dator Pepe, irrati, beherago dauden Gregorio, Pili eta X. Bermejori gertaturikoa jakin arazten diegu eta osatzeko eguraldia okerrera doa, elur erauntsia eta haize gogorra.

Bi dedatan saiatu ginen lo egiten, hurrengo goizean Pepe eta biok elurrez gainezka agertu ginen denda barruan eta beheruntz abiatzen gara, 7.050 metrotara iristean, 2.º kanpoan thea prestatu eta elurra urtu genuen kantimplorak bete ahal izateko, beheruntz jarraitzen dugu eratsi zakarrak bultzaturik ezin dugu ezer ikusi, azkenik 2.º kanpora iristen gara 6.500 metrotara, hemen dago Txispi, thea eta ura prestatuta dauzka.







Foto: Xabier Garaioa.

**Xabier Erro de regreso del Campo IV.**

**Cima del G-II de 8.035 m. Al fondo el K2 de 8.611 m.**



Denda batetan guztiok sartzen ez garenez, Pepe, Pagola eta Garaioa geratzen dira, Txispi eta ni jeitsi egiten gara.

Lehen kanpamenduan egun bat egingo dugu elurrak dendak estali zituen eta biharramonean Behe-kanpamendura jeitsi ginen; kanpamendu guztiak bere hartan utzi genituen, jadanik ez genuen izango materialea bera ere berreskuratzeko aukerarik.

Hau da gutxigorabehera neure «diarioan» idatzitakoa, gaur irailak 28 arte, ez dut ez adorerik, ez gogorik izan irakurri eta garbira pasatzeko ere. Zaurien orbantzea ez da beti erraza izaten. Behekanpamendura iritsi nintzen gauean, une batez odei artean ireki zen zerua, izar berri bat zegoen G II-ren gailur ondoan, beste guztiak baino izar dizdiratsua eta egunez ere ikus daitekena.

## RESUMEN

### EXPEDICIÓN AL GASHERBRUM II

#### Componentes de la expedición:

- Xabier Erro ..... cima
- José Miguel Goñi ..... cima
- Antton Ibarguren ..... cima
- Xabier Garaioa
- Gregorio Ariz
- Pili Ganuza
- Agustín Pagola
- Xabier Bermejo

#### Calendario:

- Julio 5 Campo Base
- » 8 Campo I (6.000 m)
- » 10 Campo II (6.500 m)
- » 11 Campo III (7.000 m)
- » 12 Campo IV (7.400 m)
- » 13 Cima del Gasherbrum II (8.035 m). En el descenso desaparece Antton Ibarguren a unos 7.800 m.
- Julio 15 Campo Base.



Foto: Xabier Erro.